

ZIRKUA. Hemengo zirkuko artistak ikusten ahalko dira, urririk



EGUNKARIA
Les Acrostiches akrobata taldea, emanaldi batean.

Lehen aldikotz, Miarritzek sei eguneko zirku jaialdi bat ikusteko aukera emanen du

Loreen hipodromoa hautatu dute maiatzaren 17tik 22ra zirku garaikidea argiratzeko

Nora Arbelbide | BAIONA

Mendekosteko asteburua zirku garaikideari eskainiko dio Biarritz Culturek. Lehen aldikotz, maiatzaren 17tik 22ra, Miarritzeko Loreen hipodromoan jarri bi karpekin batera, zirkoak har ditzakeen formak deskubritzera gonbidatzen dute.

Pagnozoo familiak batera «zirku tradizionalaren eta garaikidearen mugetara» gonbidatzen du, Laurence Pekar Biarritz Culturen zuzendariak azaldu duenez. Bederatzi zirkuko artistak, zazpi musikari zingarok, sei zaldik, ahuntza zenbaitek eta ardi batek osatzen dute haien *Ilargi eskalapoia* ikusgarria. Maiatzaren 19an eta 21ean 21:00etan eta 20an eta 22an 20:00etan ariko da familia karpan. Betiko zaldiekilako ikusgarria erakustera ematen badu ere, berrikuntzak ere badaramatza, artean karrikako artista pailazo garaikidea. Miarritzen eskainiko duen ikusgarria Les Yeux Noirs taldearen musika zingaroarekin egin trukatetaren fruitua da. Honek Errumania, Hungaria, Errusia eta Armeniatik ekarri musikak entzutera emanen ditu.

MUSIKA TZIGANOA

Pagnozoo familiaren zaldi eta ekilibristak Les Yeux Noirs-en musika zingaroarekin ariko dira

Ezec Le Floc'h konpainiak, al-diz, beste estilo bateko mundu batera eramanen ditu ikusleak maiatzaren 18an, karpan. Hiru gizonen esku dantza, ekilibrioa eta kontrabaxu jotzailearen soinua nahastzen dituzte taula gainean. «Gaur egun oso begi onez ikusia den sorkuntza» dela dio Pecarrek. Jaialdiaren ikusgarriarik garaikideena da.

Felicien bigarren graduako magia egiten duen magoak ere bere lekua ukanen du maiatzaren 18 eta 19an, 19:00etan, Colisee aretoan. Batzuetan huts egin eta besteetan erreusitzen duen artista da. Haren izpiritua soinean dituen 70. garaiko galtzen eta ileetan duen gominaren artean aurkitzen da.

Maitzaren 17an hurrek gus-tura ikusten ahalko duten konpainiaren sorkuntza ekarriko

dute karpara. Les Acrostiches hirukoteak, «zirkuko aire bat baltitz bezala», akrobaziak, jauziak eta ironiak osatzen dituela azaldu zuen antolatzaileak. Marche ou Reve konpainiak bere magia ekarriko du astelehenean 17:00etan eta asteazkenean 15:00etan Colisee aretora.

Hemengo artisten lana ezagutzeko aukera

«Diru publikoa erabiltzen dugunez, baliozko artistei lekua eman nahi diegu, ezagun bilaka daitezen». Horrela ari da lanean Pekar anderea. Ministerioak eman diruarekin talde ezagunei lekua eman badie, herrikoak ezagutzeko nahi dute baliatu aukera.

Ikusgarri handien ondoan jarritako Deskubritzeen karpan, hain zuzen, Euskal Herriko artisten ikusgarriak eskainiko dituzte, urririk. Egunero, ezagunak jokatu aitzin eta ondoren, haien artea ezagutzera emanen dute. Angeluko Ballabulle eskola eta Baionako Oreka batetik, bestetik Fabien Gracy, Fred Teppe eta Mathieu Tassy artistak, denek esku dantzekin loratuko dituzte arratsak. Egunaz, al-diz, haurrentzako zirku taillerak antolatuak dituzte. Egunero, esku dantza, ekilibrioa eta oro har zirkuaren artea menperatzeko aukera emanen die.

LEIHATILA

Karlos Aizpurua ■ Bertso irakaslea

Komediante moduan

Horrela ibili beharra al dute bertsolariek? Iduri luke baietz. Bestela nola ulertu zenbait bertsolari erdipurdiko komediante izateagatik, bertsotarako aukerarik ez ukatea, bat-batean sortzen duten ideia eta hitz katea beste bertsolariekin erkatuz gero onenetarikoa baldin bada?

Asko dira publikoarekin komunikatzeko bideak. Aurpegi polit bat aski dateke bertsolaria kantatzen hasi ez bada ere bertso ona aditu diogula irudi dakigun. Edo bertsolariaren bozaren ederra. Edo kantakera. Edo keinuak. Edo janzkera. Edo guztiak batera. Baina, eta esan nahi duena? Eta zein esapidez adierazten duen hori? Eta nola antolatzen duen diskurtsoa? Ez ote zaigu ahazten ari hitzaren kirol nazionalen hitza dela lehen gaia? Antton Luku antzerkigileak oraindik orain, *Argia*-ko elkarrizketa batean, kantuari buruz mintzo zelarik halaxe zion: «Ez da hain inportantea hitzak ez konprenitzea; gustuko baldin baditugu ahotsak edo musika» eta «... gaur ahots ederrak preziatzen dira; eta lehen espresabideak; hitzek eduki izan dute inportantzia gehiago».



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS
Pako Aristi.

Aitor dezagun bertso eskoletan komediaren zenbait alderdi lantzen ditugula, halabeharrez. Bistan da ez diegula haur eta gazteei aholkatzen besoak Basarriren moduan inarros ditzaten. Alta, publikoarenganaino iriste aldera, Tutankhamon baino biziago daudela adierazi beharra dute. Nola? Hitz batean esateko, kantatzen dena eta egoera interpretatuta: kantu kideari begiratu (norgehiagoka dialektikoan haren gainetik ari direlarik, batez ere), kideak esan duena buruarekin baieztatuz edo ukatuz, irri eginez (edo begitarteko bestelako keinuak eginez; horrelakokak telebistako lehen planoan agertzeko aukera delarik egitea komeni da) eta tabakoaren liturgiaren faltan, eztarriarekin korrozka egitea ez dago gaizki, gogorik ez izanik ere. Eta horiekin batera kantuari berari dagozkion alderdiak aktibatzea komeni da: erritmo monotonia haustea, pausak, tonua, ahotsaren proiektzioa...

INTERPRETAZIOA

Aitor dezagun bertso eskoletan komediaren eta interpretazioaren zenbait alderdi lantzen ditugula, halabeharrez

Hori bai, interpretatu beharrekoak sentsazio positiboak behar dute izan. Ez da adierazi behar akats edo petoren bat egin dela, publikoarentzat ez baita eroso, eta txapelketetan alferrik ariko dira epaileen erruki xerka.

Horiek eta antzekoen exekuzioan asmatuz gero, izugarri hobetzen ahal du bertsolariak publikoarekiko komunikazioa. Eta bertsoaren hitz katean dioena, ona edo txarra izanik ere, hobeki komunikatuko du, errazago salduko du bere bertsoa.

Hari txuria (zuria?) galtza beltzaren gainean jarriz gero, ordea, guk bertso bete nahiago, bertsolari komediante hutsa baino. Eta berdin dio, Aristiren *Putz*-a oroitzuz, bertso bete hori inpostore batena bada. Beti maiteko nauzula esan iezadazu, egia ez dela badakidan arren. Komediaren komedia, Bergarako besarkadak eta Judasen musuak ikustera iritsi(ko) gara. Bertsolariak esan nahi duena eta hitzez adierazteko moldeak, dela hitzak dela egitura, ona eta egokiak badira, ontsa futitzen gara komediaren adoboaz, gozokia ganbelatzen duen paper-txoaren fosforitoaz. Adoborik gozoenak ez dezake azukre minik ase, gurerik ez bederen. Besterik da solomorik solomoena *couché* paperean emana delarik; orduan *champion*!